

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2209

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 18koa, Araubide Juridikoaren zuzendariarena, zeinaren bidez entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapide-aldia zabaltzen baita Euskal Diasporaren lege aurreproiekturako.

Lehendakaritzak Euskal Diasporaren lege-aurreproiektua egin du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera.

Lege horren xedapenak betez, lehendakariak dekretu bat eman zuen 2026ko maiatzaren 14an, lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera emateko.

Aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.artikuluaren aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira, herritarren eskubide eta interes legitimoen zuzenean eragiten badie eta artikulua horretan jasotako salbuespen-arrazoien ematen ez bada.

Horretarako, Euskal Diasporaren lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen da hilabete batez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Azaldutako guztiagatik, aipatutako lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion lehendakariaren 2026ko maiatzaren 14ko Dekretuan eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapide-aldia zabaltzea Euskal Diasporaren lege-aurreproiekturako, hilabetez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.— Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, lege-aurreproiektua eskuragarri egongo da Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan (Nafarroa 2, 01007 Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoko iragarki-taulan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Hirugarrena.— Alegazioak modu elektronikoa aurkez daitezke <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> helbidean, eta aurrez aurre Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan (Nafarroa 2, 01007 Vitoria-Gasteiz), bai eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan ere. Alegazioak Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 18a.

Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ABEL LÓPEZ DE AGUILETA QUINTANA.